

# AMA EKARDAZU IZAR BAT



Marian Aguinaga Ruiz

# AMA EKARDAZU IZAR BAT

---

Marian Aguinaga Ruiz



Primera edición, 2017  
Autora: Marian Aguinaga Ruiz  
Ilustradora: Sarai Valero Aguinaga  
Maquetación: Raquel Garzón Montagut  
Edita: Educàlia Editorial  
Imprime: Grupo Digital 82, S.L.  
ISBN: 978-84-947281-8-1  
Depósito legal: V-1855-2017  
Printed in Spain/Impreso en España.

Todos los derechos reservados. No está permitida la reimpresión de ninguna parte de este libro, ni de imágenes ni de texto, ni tampoco su reproducción, ni utilización, en cualquier forma o por cualquier medio, bien sea electrónico, mecánico o de otro modo, tanto conocida como las que puedan inventarse, incluyendo el fotocopiado o grabación, ni está permitido almacenarlo en un sistema de información y recuperación, sin el permiso anticipado y por escrito del editor.

Alguna de las imágenes que incluye este libro son reproducciones que se han realizado acogiendo al derecho de cita que aparece en el artículo 32 de la Ley 22/18987, del 11 de noviembre, de la Propiedad intelectual. Educàlia Editorial agradece a todas las instituciones, tanto públicas como privadas, citadas en estas páginas, su colaboración y pide disculpas por la posible omisión involuntaria de algunas de ellas.

Educàlia Editorial  
Avda. de las Jacarandas 2 loft 327 46100 Burjassot-València  
Tel. 960 624 309 - 963 768 542 - 610 900 111  
Email: [educaliaeditorial@e-ducalia.com](mailto:educaliaeditorial@e-ducalia.com)  
[www.e-ducalia.com](http://www.e-ducalia.com)

Amets bat dutenentzat  
Sarairerentzat



# I. AIREAN

- Ama, ekardazu izar bat..

- Bai, maitea, ez kezkatu, zure izarrekin itzuliko naiz...

Zer goxoak egiten zaizkidan bere hitzak 4000 metroko altueran... non izango ote da orain?, zer egingo ote du?... Atzo ez nuen pentsatzen agurra hain zaila izango zenik, baina bestetik... zer arraioa!, azkenean heldu da nire garaia.

Aurtengo bidaiaren prestaketa oso gogorra izan da. Gure helburua sortu zenetik badirudi munduko gainerako gauzek ez dutela zentzurik. Gaztetasunera itzuli gara, eta nerabeak izango bagina bezala, ez dugu mugarik aurkitu gure amets berria betetzeko.

Duela 8 urte egin genuen geure azken abentura, Anapurnako trekkinga. Atzean geratu ziren beste batzuk: Toubkal igoera, Kenia Mendia, Mont Blanc, Cook Mendia, Yellowstone Park... Bakarrik Hegoamerikako lurra zapaltzea falta zitzaigun eta hara abiatzen ari gara, agian gure bizitzako abenturarik zailena: Huaskaran, Andeseko

mendirik altuena, Mendikate Zuriaren bihotzean.

Ez dakigu zergatik baina azken bolada honetan eskuetatik joan zaigu. Lehenengoa gure ezkontza izan zen, gero hipoteka, alaba, oposizioak. Beranduago gure anaiaren ezkontza, hipoteka, semea, lana... baina dena pasatu da, dena bete dugu eta hemen gaude lehen bezala, beti bezala, taldeka, laurok, izan behar den bezala.

Oraingoan aurrekoetan baino askoz zailagoa izan da prestaketa. Ohitura faltagatik, apika? -Baliteke-. Irailean zin egin genuen ez gurela beste uda arrunt bat pasatuko. Horregatik gure helburua planeatu genuen. Oso garbi geneukan tontorreraino heltzeko oso gogor eutsi beharko gurela. Lehenengo gauza, galdutako sasoi berreskuratzea zen eta, horretarako kirolari ekin genion. Asteaz hirutan korrika egitera joatea proposatu genuen, beste bi egunetan igerilekura, asteburu guztietan bizikletan eta horretaz gain, azken hiru hilabete hauetan, astean bitan, ordu betean, Ezkabara igo eta jaitsi gara. Uste dut azken hamar urteotan ez naizela hain ondo sentitu. Zortzi kilo kentzeaz gain, urte honetan gazte izatera bueltatu naiz.

Bidaia txartelak martxoan erosi genituen eta Aste Santuan, beste leku batera joan beharrean, Iruñean geratu ginen azken prestaketak egiten: bota berriak, windstopperak, goretexak, kordak, kaskoak, kranponak... Bidaiaren kudeaketa oso erraza egin zitzaigun: Liman bertan, koinataren lagunak izango ziren gure zain eta bere lehengusina batek, bidaia agentzia duenak, Huaskaraneraino eramango gintuen.

Airean oraindik, ametsetan gaude. Orain arte egindako ahalegin guztiak atzean geratzen ari dira. Dena berria da, dena ezagutzeko dago, hegazkinetik jaitsi ahala dena argiago ikusten ari gara. Hemen barruan 12 ordu eman ditugu, bizitza erabat aldatu zaigu 12 orduko bidaia honetan... Prest gaude inoiz egin ez ditugun gauzak egiteko, mundua gurea da eta azkenean, Limara heldu gara.



## 2. PERUN

Jorge Chavez aireportuak Europako beste aireportu baten antzik ez du. Ia-ia goizeko bostak dira eta jendez gainezka dago. Denetarik ikusten dugu: pertsona altuak, oso txikiak, indioak, ilehoriak, gu bezalako jendea, japoniarren antzekoak, kolorez jantzitako probintzianoak... Ikusgarria da, batetik hain ezberdinak eta bestetik, hain berdinak... beste modu batean mugitzen dira, askoz motelago, askoz lasaiago, alegia. Beren aurpegi alaiak agurtzen gaituzte. -Kaixo "gringuitos" ongi etorri Perura-. Mundu guztia so gelditzen zaigu, baina begirada hauek ez gaituzte gaizki sentiarazten, erabat kontrakoa, harrera ona ematen ari zaizkigu.

Lur jota gaude, hegazkinean oso gutxi egin dugu lo eta ordutegi aldaketaren ondorioz erabat nahasirik gaude. Egun hau oso gogorra izango da. Aireportuko atarian gure lagunekin geratuak gara eta espero dut etxera joan bezain pronto oheratu ahal izatea bihar ondo egoteko. Bakarrik egun bat dugu Liman egoteko, arratsaldeko zortzietan Huaskaranera eramango gaituen autobusa hartuko baitugu.

Maletak ateratzen ari dira eta irrikan gaude Limako zerua ikusteko. Oso bitxia da. "La garua"-k bere lainoaz estaltzen du beti Limako zerua, jende guztiari itxura grisa emanez. Azkenean Peruko lurra zapaldu dugu eta gure lehenengo esperientzia desatsegina bizi izan dugu. Ahaztuta neukan, baina hasieran oso zaila da hemengo giro zaratatsura ohitzea eta odol latinoak ateratzen zaigu. Aireportutik jalgi bezain pronto ehun taxilarik inguratzen gaituzte, denek eraman nahi gaituzte, denek beren zerbitzuak eskaintzen dizkigute prezio merkeagoan.

Bat-batean, gure maletak desagertu dira, eta bata bestearengandik bereiztuta gaude. Bakarrik nago, bakarrik ez, oihu egiten didaten hogeita bost gizonez inguratuta. Ez dut ezer entzuten, ez dut ezer ikusten, abailduta nago eta ez dakit zer egin. Oihuka hasi naiz, -Non daude nire maletak? - Non dira nire lagunak? Lagundu, bahituko naute!

- Lasai "cholita", guk bakarrik lagundu egin nahi dugu. Deblauki gure Limako lagunak agertu dira eta taxilari guztiak joan dira. Lagunak gustura barre egiten ari dira, gutaz noski, eta berehala eraman gaituzte autora.

Hamabost urte elkar ikusi gabe, eta lanez, gure alabaz, anaiaren semeaz, gurasoez eta gure abenturez hitz egin dugu. Peruko egoera politikoa poliki-poliki aldatzen ari dela kontatu digute eta etxerako bidean ikusten dugu nola aldatu den Lima azken hamabost urte hauetan.

la-ia goizeko zazpiak dira, eta gure lagunek gosari ederra prestatu digute. Haiiek lanera joan behar dute, eta eguerdian berriro elkartuko gara ostatu batean bazkaltzeko, ondoren, arratsaldean, hiria bisitatuko dugu. Momentuz, ordu batzuez oheratzea aukeratzen dugu, ordu asko baitaramatzagu lorik egin gabe eta gure gorputzek atsedenena behar baitute.

“Brisas del Titikaka” salsodromo bat da eta hara joango gara bazkaltzera. Lo egin ondoren gure humorea erabat aldatu da, eta zaratarra, trafikora eta jendera moldatzen ari gara. Lagunekin Armako enparantzan geratu gara eta handik ‘El Callao’-ra abiatzen ari gara. Hemengo distantziak harrigarriak dira eta Lima zeharkatzeko bi ordu eman ditugu autoan. Gose gara eta azkenean salsodromora heltzen ari gara non jaki goxo eta jorien festa bat egingo dugun.

Izugarrizko otordua eman digute: antikutxoak, behi bihotzak, zebitxea, kuskeinak eta pisko-sour..., arratsalde ahaztezina pasatu ondoren erdi mozkorrak atera gara, oroitzapen guztiak berpiztu ondoren.

Autobus geltokirantz goaz. Eguna oso motza izan da. Gure agurra ez da luzea, ez tristea, oraindik ez gaude zior, baina gure bihotzek laster elkartuko garela sentitzen dute. Horrela izango ahal da!

Zortziak dira eta gure autobusa abiatzear dago, oso gau luzea izango dugu... Lotan geratzen ari naiz, nire buruan alabaren irudia besterik ez dago.

